

Araua



Idazle guztiei dei egiten diegu
**26. EDEBÉ HAUR ETA
GAZTE LITERATURA SARIAn**,
parte har dezaten. Lehiaketa honetan
kalitate handiko idazlanak bildu ohi
dira, irakurle gazteen ametsak
pizteko modukoak: fantasiako
ipuinak, narrazio umoretsuak, istorio
zirrargarriak, kontraera bitxiak...

Aurkeztu zure idazlana.
Denok dugu saritzeko zerbeit.

Bi dira sariak: haurren sailekoa, 7 urtetik 12ra bitartekoentzat idatzitako lanei zuzendua, 25.000 eurokoa; eta gazteen sailekoa, 13 urte baino gehiagokoentzat idatzitako lanei zuzendua, 30.000 eurokoa. Bi sailtako bakar batean soilik parte har daiteke.

Bi modalitateetan, saria jasotzeak esan nahi du, jabetza intelektualak irauten duen artean, egileak Edebéren esku utziko dituela lanaren ustiatze-eskubideak, edozein hizkuntza, formatu eta banaketa-kanaletan, zuzenean nahiz hirugarrenen bidez, mundu osorako; uzte hori formalizatzeko, egileak argitaletxean une horretan indarrean dagoen edizio-kontratu estandarra sinatzeko betebeharra izango du. Sariaren diru kopurua ustiatze horien bidez lortutako egile-eskubideen aurrerapentzat hartuko da.

Edebé argitaletxeak izango du lehentasuna epaimahaiak argitaragarri iritzi baina saririk jaso ez duten lanen eskubideak eskuratzeko, estatuko hizkuntza guztietarako.

Lanak jatorrizkoak izango dira, argitaragabeak, gai librekoak, eta gaztelaniaz edo estatuko beste edozein hizkuntzatan idatziak. Literatura-generoa: nobela. Bi kopia bidali behar dira honako helbide honetara: Premio Edebé de Literatura Infantil y Juvenil. Editorial Edebé. Paseo San Juan Bosco, 62. 08017 Barcelona. Gutun-azalean garbi adierazi behar da zein sailtara aurkeztu nahi den lana.

Lanen luzera: haurren sailean, 20 orrialde gutxienez eta 80 gehienez; gazteen sailean, 80 orrialde gutxienez eta 200 orrialde gehienez. Lanak lerroarte bikoitzarekin eta alde bakar batetik mekanografiaturik aurkeztuko dira, DIN-A4 orrietan. Euskarri informatikoan ere bidali behar dira lanak.

Lanekin batera, gutun-azal itxi batean, egilearen izena, helbidea, posta elektronikoa eta telefonoa adieraziko dira. Epaimahaiak bi sailtako irabazleak zein diren ebatzi ondoren irekiko ditu gutun-azalak.

Parte-hartzaile bakoitzak nahi beste lan aurkez ditzake, baina sail bakar batera. Halaber, nahitaezkoa da, batetik, aurkeztutako lanak beste ezein lehiaketatara ez aurkeztea; eta bestetik, inolako argitalpen-konpromisorik ez izatea, ez Edebé sarira aurkeztu aurretik, ez lehiaketaldian bertan.

Lanak hartzeko epea 2017ko irailaren 15ean amaituko da. Ezin izango dute lehiaketan parte hartu, ez Edebé taldeko langileek, ez eta aurreko urteko irabazleek ere.

Epaimahaia Edebék izendatuko du eta literaturan eta hezkuntzan adituek osatuko dute. Ezin izango da jakin nor diren epaimahaikideak, lan sarituak zein diren ebatzi arte. Ebazpena ezeztatzina izango da, eta 2018eko urtarrilaren amaiera aldera jakinaraziko da ekitaldi batean.

Saritu gabeko lanak deuseztatu egingo dira sariak banatu eta hurrengo lau hilean. Lanen bat galduz gero, argitaletxeak ez luke inolako erantzukizunik hartuko.

Edebé Haur eta Gazte Literatura Sarian parte hartzeak oinarri guztiekin ados izatea dakar.

www.edebe.com

giltza